

## Etxeko kontuak

**N**atalia Ginzburg idazlearen libururik adierazgarrienetako bat *Gure etxeko kontuak* da. Jatorrizko izenburua *Lessico familiare* da, baina euskaraz daukagu, aurkezpen handien beharrik ez duen Fernando Rey itzultzaile bikainak euskaratu zuelako, Igela argitaletxearentzat, 2004an. *Gure etxeko kontuak* liburuan, Natalia Ginzburgek familia deritzogun izate “terrorifikoa” aztertzen du, eta, bidenabar, guraso, anai-arreba eta sendi-lagunak oromenera ekarri, inguruko gizartea ere bai. Familia-kronika bakoitza, garai bakoitza bezala, bat eta bera da, errepikatzen zaila, baina Natalia Ginzburgen liburua irakurtzerakoan berehala konturatzen gara oso hurbileko etxeko kontuak eta oso gaurko etxe-giroko osagaiak ekartzen dizkigula gogora. Familiari familiak berak baino kalte handiagorik egingo dionik ez dago, eta nik ulertzen dudan moduan, ezkerreko politikari ohiko jarreraz gertatzen zaizkionak ongi deskribatzen dute misterio berezi hori, alegia ezkerreko politikari ezkerreko politikak berak baino kalte handiagorik egingo dionik ez dagoela. Ezin etxekoak izorratu gabe bizi, betiko maitasunaren izenean. Beñatek eta Uxuek hori ikusi dute, nik ere bai, aspaldi, baina ohartu naiz tristezia bizian jartzen nauela onartu beharrak. Eta onartu beharra dut, arimaren etsairik handiena eliza bera dela onartu behar den bezala edota herritarren segurtasunaren kontrakarrik kontrako itsusien polizia bera dela onartu behar den bezala. Etxetarrak etxekoak maite ditu, baina beste etxekoak eta besteen etxean. Bildu koalizioak garaipen argia lortu badu ere Gipuzkoako foru-hauteskundeetan, garaipen hori espejismo hutsa baino ez da niretzat. Ezkerreko alderdien porrota gardena baita, eztabaidaezina

CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Apaolaza

tzat. Ezkerreko alderdien porrota gardena baita, eztabaidaezina. Eta ongi deskribatzen du errealitate hori Rosalía Mera andrea, Zarako fundatzaile eta Espainiako emakumerik aberatsena, M15 mugimenduari bere elkartasuna adierazten ikusi beharrak, “Planto egin eta ‘horrela gehiago ez’ esan

behar dugu” ausaz adierazi zuen bihotz onekoak, A Coruñako katedralean erreztzera sartu aurretik. Kapitalismo zoroak ezin hobeto txertatu du bere bihotz zoroa gure ohituretan, asmatu du, eta gure egunerokotasunarenganako sentimenduekin nahastu da: museoak jartzen dizkiogu, azkena, Getarian bertan. Etxekook pepino kutsatu zaleak garela argi dago, oso gainera, eta beste bat sartu digute nortasunaren entsaladan. Etxeko kontuak, noren etxekoak baina, ez dakigu. Jorge Oteizaren oztoporik handiena ere bere herrikideen kintzeria izan zen, etxean bertan zituen Oteizak bere areriorik tonolapikoenak, Antonio anaia gazteena tartean. “Guraso berberen semeak izan arren...”. Etxe barruan horrelako anaiak izanik ez dugu kanpoko etsairik behar. Beharrik ere ez! Baina etxekoen haragia ahula da. Hortxe Vicky eta Mari Jose, ahizpa bikiak izan nahian, eta ADN frogak ezetz, ez ahizpa, ez biki, ezta elkarren ezagunak ere ez direla izan sekula. Izuen etxeko kontuak. Beharbada, Goizargi Estibaliz Carranza Zabalak ere horrelako zerbait izango zuen gogoan, bere senarra izandakoaren eta bere mutil-lagun berriaren gorpuak zatitu, txiki-txiki egin eta gorpuzkinak Vienan zuen izozki-dendaren sotoan gordetzen zituen bitartean. Poli-ziak zerk bultzatuta egin omen zuen galdetu, eta Estik aitortu: “Familiaren arazok, etxeko kontuak”. ■



Etxetarrak etxekoak maite ditu, baina

beste etxekoak eta besteen etxean.

Bildu koalizioak garaipen argia lortu badu

ere Gipuzkoako foru-hauteskundeetan,

garaipen hori espejismo hutsa baino ez da

niretzat. Ezkerreko alderdien porrota

gardena baita, eztabaidaezina

